

1. BALIO PROPOSAMENA:

Gure enpresak balio kualitatiboa eskeiniko du, hain zuzen ere zerbitzuaren hobekuntzan zentratuko gara. Balio hau bermatuko dugu, jendeari zerbitzu bat emango diogulako eta honen bidez beharrak asetuko ditugulako.

Enpresa berri honek bermatuko dituen elementu garrantzitsu edo nabarmenenak; Berritasuna, Prestazioak, Lana erraztea, Erabilerraztasuna izango dira.

- **Berritasuna:** aurretik existitzen ez zen beharrezana asetuko dugulako, teknologiarekin erlazionatuta dagoelako makina saltzailea eta berriztatzailea delako bertan sartuko duguna.
- **Prestazioen** alorrean; produktu edo zerbitzu baten erabilera hobetzea da xede nagusia. Baita makina saltzaileetan produktu berriak saltzea.
- **Lana Errazteari** buruz; Tabernako jendetza ekiditzeko eta beste zenbait erraztasun bermatzeko burutuko dugu proiektu hau.
- Azkenik, **erabilerraztasunaren** inguruan; Makina saltzailea erabiltzeko erraza izango da, eta honetarako esplizituki prestatuta egongo da.

Gure zerbitzua, makina bat izango da. Honek izan beharko dituen ezaugarri ukiezinak; janaria bertan ondo kontserbatzeko egokitzapena, espaziotzua izatea, teknologia berriekin egindakoa izatea, segurua eta erabilerraza izatea izango dira.

Gainera nabarmentzea gustatuko litzaidake, makina beste enpresa bati erostia izango dela eta janaria durangoko tabernetako pintxoak izango direla, hau da, gu makina janariz hornitzeaz arduratuko garela.

